



Eman hegoak euskarari



Gaixoa eta literatura. Hiru adibide

Umoretik tragediara bide nabarmena egiteko liburu ezberdinak irakurri ditut egunotan

JON KORTAZAR

Gaixotasun mentalari buruzko hiru liburu desberdin irakurri ditut egunotan. Hirurek dute tonu desberdina. Umoretik tragedia-
ra bide nabarmena egiteko moduko irakurketa.

Irri garratza

Joseba Sarrionandia eta Markos Gimeno

Ez dut esango komediatik hurbil dagoen liburua dela Joseba Sarrionandiak atera duen 'Markos Gimenoren 101 Letrakartel', baina aipa dezaket Markos Gimenoren palindromoak irakurri ditugunean irribarre xume batek egiten duela irrist ezpainetatik bera. Bada-kizue zer den palindromoa, eskumatik ezkerre eta ezkerretik eskumara berdina irakur-

tzen den hitz multzoa edo esaldia. Hemen aipatu den bat hona ematearren: 'A igelak, alegia'.

Oso ongi eta eder argitaratu den liburuak lau alde nagusi dituela esango nuke. Batetik, idazle durangarrak. Palindromoak euskaraz egiteko dohaina zuen Ermuan jaiotako egilearen bizitza beltza kontatu du, 1974tik bere buruaz beste egin zuen egunera arte, 2018ko abenduaren 7 arte. Bipolaritatearen mende eta depresioa eta antsietatea lagun zituela, ez zuen bizitza erraza bidaide izan hitzen artista horrek. Bigarrenik, eta orrian behe aldean ageri badira ere, Markos Gimeno osaturiko palindromoak ageri dira, denak harrigarriak. Hirugarrenik, eskumako orrian zenbait artistek egin dituzten irudi

txundigarriak: Eta azkenik, Sarrionandiak palindromoan inguruan egin dituen hitz jokoak ageri dira, gaiaren inguruko idazleen aipuak, ironia eta satira batera.

Tragikomedia

Ander Izagirre eta Zuhaitz Gurrutxaga

'Subcampeón' kronika liburuan Ander Izagirrek, Zuhaitz Gurrutxagaren laguntzaz, honen bizitzaren alde iluna azaldu digu. Futbol jokalaria famatua izateak duen infrentzu latza ekarri du orrietara.

Jakina da heroia jausiaren mitoa oso erabilia izan dela kirol literaturan. Heroiak hasiera-hasieratik daki bere izaera bikoitza dela, jainkoen mailara igotzeko ahalegina egin duela-

ko, hilkorra dela jakinik. Xabier Montoiak aspaldi eman zigun ipuin gogoangarri bezain hunkigarria bidea galtzen duen jokalariri buruz. 'Fucking artists' liburuan izan zen eta kontakizuna 'Loria omen zion halabeharrak gordea' deitu zuen.

Aitorpen kutsua emanez, eta jarraitzen zaila egiten den entzuleari bigarren pertsona hitz eginez, Zuhaitz Gurrutxagak gazi-gozoz kontatzen du bere loria, eta bere gain behera, antsietatearen eta 'Trans-torno obsesivo compulsivo' delako gaixoarenekin. Kontakizunak atal biak hartu ditu kontuan, umorea hainbat alditan eta gaixoa onartzeko eta gaitzitzeko egindako ahaleginak bestetik.

Tragedia

Mar García Puig

Bikiak erditzen dituen gau beratan Espainiako Kongresurako aukeratua izan zen Mar García Puig, eta laugarren agerraldian den 'La historia de los vertebra-

dos' deiturik aitorpenean amatasunaren zailtasunak utzi ditu agerian. 'Erditze ondorengo erotasuna' deitu izan den antsietate prozesua dugu libururen aitorpen gogorren mui-na. Larritasunez eta kezka bereriko narrazioan Mar García Puigek esperientzia pertsonala dakar gure begietara.

Ikuspegi feminista jasoz, psikiatriak eta ginekologiak emakumeekiko izan dituen jarrerren berri eman du, askotan XIX. mendeko aipamenak eta adibideak ekarri, erditze unearen estutasunak orrietara ekarri.

Lazgarriak dira XIX. mendean Ingalaterrako eroetxeetan gaixo hori zuten emakumei egiten zizkieten praktikak. Lazgarriak eta izugarriak.


Jaio berri diren bere semearen eta alabaren heriotzaren ideiaz itoaldiak harturik, emakumearen izaerari eta sufrikarioei buruzko testu eredugarria da Mar García Puigek idatzi diguna.

Gurrutxagak gazi-gozoz kontatzen du bere loria

Askatasun amorrua

JON MARTIN-ETXEBESTE

Haur basatien ideia horzkatzen du Emily Hughesen albumak, basoan animaliek hazitako neskato baten haurtzaroan kokatuta dago. Basora doitu ondoren, jendartera ezin ohitu den pertsona baten istorioa kontatzen du. Askatasunaren eta naturaren esentzia biltzen du albumak eta norbere sustraiei eta nortasunari fidel izatean oinarritzen da. Garazi Ugaldek euskaratu du jatorrizko izena 'Wild' duen liburua, 1545 argitaletxearen lehen itzulpena izan den hau. Testua xumea da, soberako hitzik gabea, baina espresiboa. Liburuaren bereizgarri nagusia bere ilustrazioen maila da. Hughesen irudiak distiratsuak dira, orrialdetik salto egiten duten mugimendu eta bizitasunez beteak. Horretarako, baso koloreko paleta erabiltzen du: berde sakonek, marroi beroek eta kolore distiratsuen ukituek aldi be-



BASATI
Emily Hughes
1545. 2023. 32 orr.
17,00 euro

rean abegikorra eta misteriotsua den atmosfera sortzen dute. Estilo errealista eta fantastikoa uztartzen ditu. Neskatoaren eta animalien adierazpenak halako xehetasun eta emozioz erretratatu daude, ezen batzuetan hitzik gabe komunikatzen baitute istorioa.

'Basati'k haur bakoitzaren indibidualtasuna eta onarpena sustatzen ditu. Haurraren berezko bulkaden eta hiritar bihurtzeak dakarren otzantzearen arteko tentsioa lantzen du, naturaren eta zibilizazioaren arteko gatazka. Protagonistak ile mardula eta nahasia darama, bere izpirituaren sinbolo; izaki ahaldundua da, menderakaitza; baina xamurtasunez enpatizatzen du irakurleak protagonistarekin.

Haren esperientziaren bidez, haurrek beren buruarekiko leialak izatearen garrantziaz haunartuko dute eta kontsentsu sozialak ulertzeko eta errespetatzeko dituzten zailtasunekin konektatuko dute. Azken batean denok, haurrek eta helduok, barruan dugun piztitxo basatiari keinu bat egin, biluztu eta naturara itzultzeko gonbitea da album ilustratu hau.

Oroitzapenak dantzan

ARANTXA URRETABIZKAIA



Festetan edo hortik kanpo, halako batean egiten duzu topo aspaldian adiskide zenuen norbaitekin, ez du axola non eta noiz eta bat-batean oroitzapenak dantzan hasten zaizkizu. Azaleratuko dira ustez ahaztu zenituen gertakizunak, etorriko zaizkizu gogora era guztietako pasadizoak.

Seguruenik, lehen hitzetatik ulertuko duzu ez zarela garai haietako hura eta ez zaudela aspaldiko haren aurrean, ia-ia biezegunek egin dutela topo. Aurpegiak aldatu dira, baita oroitzapenak ere. Egiaztatuko duzu aspaldiko adiskideak gogoratzen dituen gertakizunak zuri ahaztu egin zaizkizula, hark ez duela gogoan zure oroitzapen bat edo beste eta biok gogoratzen duzuen zerbait modu desberdinean gogoratzen duzuela.

Alferrik ahaleginduko zara egia non dagoen zehazten. Ez zarete gezurretan ari, ez nahita behintzat. Besterik gabe bakoitzaren memoriak aldatu egin du gertatutako hura, pilatu egin ditu gertakizunak, nahastu, itxuraldatu. Memoria ari zaizue gezurretan, ez zuek.

Batzuetan datak ez datoz bat, zu edo zure adiskidea ez zeundeten memoriak esaten dizuen leku hartan. Bestetan gainerako lekukoak ez dira zuk uste zenituenak. Berdin zaio, gertatutako hura edo gertatu ez zen hura metabolizatu egin duzu, egosi egin du memoriak eta esperientzia esaten zaion horren barruan dago.

Horrelakoetan ez dut sekula besteak esaten duena ukatzen ez aldatzen. Azken batean berdina zaio. Adiskideak ahal izan zuena egin zuen gertatutako zera harekin, zuk bezalaxe, nor bere beharretara egokitu du pasadizo hura. Eta bion bizitza ez da aldatuko oroitzapen zehatz hura finitzen ahalegintzen bazara ere.

Bizi izan duzun egin zaitu zarena, horretarako zure memoriak gertakizunak itxuraldatu behar izan baditu ere. Eta berdina gertatzen zaio adiskideari. Beraz, bersarkatu adiskidea eta utzi lasai memoria bere gezurretan egosten.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Maitasun kapitala
Karmele Jaio. Elkar

2 Kantu berri bat gara
Jona Maia. Elkar

3 Miñan.

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Loak ezkututzen duena
Patxi Zubizarreta. Elkar

EZ FIKZIOA

1 Biziaroak
Xamar. Pamiela

2 Arrakasta
Jasone Osoro. Elkar

3 Juana

Jon Artano. Elkar

4 Sahara, herri bat erresistentzian
Kristina Berasain. Elkar